

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren zergadunen errolda. 2020ko ekitaldia

Egin da landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren zergadunen errolda. Hura jendaurrean egon da hamabost egunez, 2020ko uztailearen 13ko ALHAOn (78. zk.) argitaratu zenetik aurrera, eta epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. idatz zatian. Beraz, errolda behin betiko onartuta geratu da.

Ikusi da Udaltzaren 2020ko ekainaren 19an onetsitako zerga egutegia, COVID-10aren ekonomia eragina arintzeko hartutako neurrien multzoan barruan dagoena.

2020ko azaroaren 2tik 2021eko urtarrilaren 2ra bitarteko egun baliodunetan (bi egun haiek barne), ordaindu ahal izango dira borondatezko epean aurtengo landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epeak:

A) Borondatezko epea: 2020ko azaroaren 2tik 2021eko urtarrilaren 2ra arte.

B) Beteazte aldia: 2021eko urtarrilaren 3tik aurrera beteazte aldia hasiko da eta beteazte errekaratuak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze erroldatua jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2020ko irailaren 25a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ